



DESBERDINTASUNAK

baztertuz

GARAPENA

lortu



ANIMATZAILEaren Gida
D.B.H.
3-4

Aurkibidea

 Aurkezpena	3
 Zure informaziorako	5-7
 Proiektu Solidarioa	8-9
 1. Jarduera: Desberdintasunen bila	10-11
 1. Jarduera (Ikaslearen fitxa)	12-14
 2. Jarduera: Zergatiak bereizten	15-16
 2. Jarduera (Ikaslearen fitxa)	17
 3. Jarduera: Premia bati erantzunez	18-19
 3. Jarduera (Ikaslearen fitxa)	20
 4. Jarduera: Barrualdera bidaiatuz	21-22
 Otoitza egiteko	23-25
 Eranskinak	26

Aurkezpena

PROCLADE Garapenerako Promozio Klaretiarretik gonbidatu nahi zaitugu **"Desberdintasunak baztertuz garapena lortu"** izeneko kanpaina parte hartzera Animatzaile gisa.

Kanpaina honen bitartez **Hegoaldeko Herrietako emakumezkoek** bizi duten errealitatea ezagutu eta haiek pairatzen duten bidegabekeriaren ondorioak aztertu nahi dugu, bai eta haur eta gazteak gizonezkoek eta emakumezkoek baldintza berdinetan parte hartu eta erabakitze aukera ematen dizkien gizarte bat eratze ekimenetan inplikatu ere.

Beti bezala, Hegoaldean lanean ari diren pertsonak izango ditugu lekuko gisa, eta egoera txarrean dauden herrienganako dugun elkartasuna zehaztuko dugu, proiektu honekiko konpromisoa bultzatuz: **FAMILIA BAT BAKEAN (San Pedro Sula, Honduras)**.

Eskuartean duzun gida honek kanpaina hau bultzatzeko lan proposamen bat izan nahi du, hau da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetakoa ikasleekin erabiltzeko proposatzen dizugun material bat. Adin horretako ikasleekin lantzeko aukeratu dugun gaia **EMAKUMEA ETA LANA** errealitatea da. Ea baliagarri zaizun!

Eskerrik asko zure elkartasunagatik eta misiolari lanagatik.

PROCLADE

Hezkuntza eta Sentsibilizazio Arloa



Zure informaziorako

Munduko lurralde baten ere ez dituzte gizonezkoek eta emakumezkoek praktikan eskubide berberak, ez legearen aurrean, ez gizartean ez eta ekonomia alorrean ere. Hortxe ikusten da **genero-desberdintasuna oraindik konpondu gabeko arazo bat dela**. Munduko pobreen artean %60-70 emakumeak dira. Eta hona hemen beste datu esanguratsu bat: oro har, jabetza %1a baino ez dago emakumezkoen eskutan.



Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasuna handiagoa da pobrezia handiagoa dagoen lekuetan. Baliabideak urriagoak direnean eta oinarriko zerbitzuak eskuratzeko zailtasunak daudenean, orduan emakumeak dira bitarteko eza era gogorrean pairatzen dutenak. **Genero-desberdintasunek pobrezia larriagotu egite dute**, amaiera gabeko gorpila edo gorpil zoro bat eratuz, eta gorpil hori hautsi beharra dago. Pobrezian bizi diren emakumeei sarritan ukatzen zaie maileguak, lurrak eta herentziak moduko bitarteko kritikoak eskuratzeko eskubidea. Munduko jabetza (lurrak, etxeak, bankuko kontuak, etab.) %1a baino ez dago emakumezkoen eskutan.

Emakumeen lana ez da aintzat hartzen ez eta saritzen ere. Emakumeen zaintza medikua eta elikadura ez dira lehentasuntzat hartzen, emakumeek ez daukate ez heziketa jasotzeko ez laguntza zerbitzuez baliatzeko aukera, eta ia ez dute parterik hartzen erabakiak hartzerakoan, ez etxean ez komunitatean.

Heziketaren alorrean ere desberdintasun nabarmenak ikusten dira: eskolara ez doazen 113 milioi haurretik bi heren neskatilak dira. Era berean, hiru heldu alfabetatugabeen artean bi emakumezkoak dira eta, aurreikusten denez, datozen 20 urtetan proportzioa ez da asko gutxituko. Nabarmenezkoa da baita ere zein gutxi agertzen diren emakumeak testuliburuetan eta nola ikusten diren gizonezkoen eta emakumezkoen rola testuliburu horietan.



Heziketa eta arreta medikua izateko aukera duten neska eta mutilen arteko desberdintasuna larriagoa da pobreen kasuan diru-sarrera handiagoak dutenen artean baino. Desberdintasun horiek direla eta, emakumeen eta neskatilen egoera txarragoa da eta garapenean parte hartzeko eta garapenaren onuraz gozatzeko aukera txikiago dute. Emakumearen heziketa maila handitzearena ez da bakarrik justizia kontua, nekazaritzaren produkzioa handitzeko ere balio du; izan ere, Munduko Bankuaren azterlan batek dioenez, emakumeen hezkuntza mailak gora eginez gero nekazaritzaren produkzioak ere %7tik %22ra bitarteko igoera izango luke.

Heziketarekin ere emakumeen eta beraien familien egoera hobetu ahal izango litzateke: etxekoen osasuna eta elikadura hobetzea, haurren gaixotze eta hilkortasun tasak txikiagotzea, biztanleriaren hazkundera geldiaraztea.

Eskolara doazenak orain gehiago badira ere, hezkuntzaren eraginak oraindik oso txikiak dira; izan ere, neskek eskola utzi behar izaten dute ikasketak amaitu gabe anai-arreba txikiak zaintzeko.



Lan arloan, esan dezakegu herri gehienetan emakumeek gizonek baino ordu gehiago egiten dutela lan. Oro har, aginte gutxiko postuak betetzen dituzte eta gizonek baino gutxiago kobratzen dute. Gainera, emakumeek egiten dituzten lanen bi herenak ez ditu inork ikusten, lan horiek ordaintzen ez direlako edo balio komertzialik ez dutelako. Munduan zehar dabilen diruaren %10a eta lantzen diren lursailen %1a da emakumeena.

Emakumeek gizartean duten partaidetza txikia da, eta horrelakoa da baita ere **Politikan**. Izan ere, estatu gehienetan oraindik emakume gutxi dira legebiltzarkide, eta, hori horrela, emakumeen iritziek eragin txikiago dute gobernuak gizarte osorako hartzen dituen erabakietan.

Indarkeria da emakumeek bereziki eta gehien pairatzen duten fenomeno. Gaur egun ere munduko eskualde guztietan bizi dugun errealitate tristea da indarkeria eta era askotara agertzen zaigu: etxean gertatzen den genero-indarkeria, sexu esplotazioa, bortxaketak, hilketak, haur-hilketak, organo genitalen mozketak... Nazio Batuen Erakundeak dioenez, hiru emakume edo nesken artean bik kolpeak eta sexu abusuak jasan dituzte beraien bizitzan zehar.



Urtean gutxi gorabehera 2 milioi neskatori kentzen dizkiete beren organo genitalak. Djiboutin eta Somalian nesken %98 dira mutilatuak. Bat bateko izuaz eta minaz gain, mutilazioak odol galera luzeak, infekzioak, antzutasuna eta heriotza eragiten dizkie. Ez dago erlijio bat ere inor mutilazioa jasatera behartzen duena. Tradizioa da, birjintasunari eusteko, ezkondu ahal izateko eta sexualitatea kontrolatzeko.



Indarkeria ez da emakumeen osotasun fisikoarentzat dagoen mehatxu bakarria, **osasun arazo** askok ere emakumearen kalterako dira. Esaterako: nesken elikadura mutilena baino pobrea goa da nutrienteei dagokienez, eta horrek, epe laburrera eta luzera, hainbat gaixotasun ekartzen dizkie. Era berean, emakume askok arazoak izaten dituzte haurdunaldian edo erditzean, eta horren ondorioz gaixotasun larriak izaten dituzte, hiltzerainokoak ere.

1975az geroztik Munduko 4 Konferentzia egin dira Emakumearen errealitateaz hitz egiteko. Konferentzia horien ondorioz, hona hemen 2015 urteari begira proposatutako jomugetako batzuk:

- Lehen hezkuntza unibertsala eskaintzea herri guztietan.
- Haurren hilkortasun tasa txikiagotzea, hau da bizirik jaiotzen diren 1000 haur bakoitzeko 35 baino gutxiago izatea hiltzen direnak. 5 urte baino gutxiagoko haurren hilkortasun tasaren kasuan, berriz, adin horretako 1000 haur bakoitzeko 45 baino gutxiago izatea hiltzen direnak.
- Ugaltze prozesuan osasun laguntza eskaintzea lehen mailako osasun arretarako sistemaren bidez.
- Neskek eta mutilek heziketa maila berdina izatea.
- Amen hilkortasun tasa %50 txikiago izatea.

Milurtekoaren Garapen Helburuek ere emakumeen errealitatea izan dute kontuan eta beren jomuga batzuen gai nagusitzat hartu dute.





Proiektu Solidarioa

HONDURAS

- Honduras Ertamerikako herria da eta 6.900.000 biztanle inguru ditu. Biztanleen erdia 1000 biztanleko herrixketan bizi da.
- Ertamerikako herri handienetako bigarrena da eta eskualdeko menditsuena.
- 1998an Honduras herria Mitch urakanaren biktima izan zen. Fenomeno horrek bost biztanletik lau kalteu zituen eta herria suntsituta utzi zuen.
- Gehienak herrixketan bizi dira eta nekazaritzan eta abeltzaintzan aritzen dira. Pertsona horiek dira alfabetatze mailarik baxuena eta zerbitzu publikoez (zaintza medikua, edateko ura, argia...) baliatzeko aukera txikiena daukatenak. Artoa eta babarrunak (*frijol*) dira bere elikagai nagusiak.
- Azken urteetan, krisi ekonomikoa dela eta, langabeziak gora egin du eta hiritarren segurtasun eza handitu egin da. Horrez gain jendea Estatu Batuetara emigratzen hasia da.



Kezkatzeko moduko datuak

- ⚔ Hondurasen emakumea da bere etxea administratzen duena, eta bera da seme-alabaz elikatzeaz arduratzen dena.
- ⚔ Emakumeen eta gizonen soldaten arteko aldea ikaragarria da; batz besterik, gizonen soldatak emakumeen halako bi eta erdi dira.
- ⚔ Herrialdearen iparraldean, emakume asko "maquiletan" (ehundegiak) ari dira lanean. Lan horretan ari diren amen %79 ama ezkongabeak dira.
- ⚔ IHESa emakumeengan gizonen gain bano azkarrago hedatzen ari da.
- ⚔ Egunero-egunero 50 abortu izaten dira.
- ⚔ 15 eta 19 urte bitarteko lau emakumezkoen artean batek badu seme edo alaba bat.
- ⚔ Honduraseko emakumezkoen %75ak indarkeria fisikoa nozitu du noizbait bere bizitzan.





SAN PEDRO SULAKO CARITAS

HONDURAS



San Pedro Sulako Elizbarrutiaren Cáritas HONDURASEKO NAZIOARTEKO CÁRITASen egitura zati bat da, eta, era berean, NAZIOARTEKO CÁRITASen zatia. Honduraseko Cáritas erakundeak 8 ordezkaritza ditu herrian, eta horietako bat San Pedro Sulako Diozesa dugu, Angel Garachana monsinore misiolari klaretiarra da elizbarruti horretako burua.

Honduraseko Cáritas 1967az geroztik ari da lanean eta bere jarduera esparruak honakoak dira: Nekazaritza eta Ingurumena; Emakumea eta Familia; Osasuna, etxebizitza eta Gizarte Ekintza Kristaua (pobreak, baztertuak eta ez onartuak)

2000. urteaz geroztik Cáritas, berak egiten duen lan soziala osatzeko, Elizaren doktrina sozialaren gaineko prestakuntza eskaintzen ari da.

PROIEKTUA FAMILIA BAT BAKEAN

Babes Etxea San Pedro Sulako Cáritasek etxean indarkeria fisikoa zein morala jasan eta arrisku egoeran dauden emakumeei eskaintzen dien zerbitzu bat da. Babes Etxe honetan jana eta ostatu ematen zaizkie, bai eta laguntza psikologiko, sozial eta juridikoa ere.

Babes Etxe honen helburuak honakoak dira:

- Etxean indarkeria fisikoa jasaten duten emakumeak **denbora batez hartzea** (gehienez 7 egun). Emakume hauek beren seme-alaba txikiekin egon daitezke bertan.
- Emakumearen **autonomia pertsonala ahalbidetzea** prestakuntza egokia emanaz, hain zuzen ere jarduera ekonomiko produktibo bat martxan jarri ahal izateko beharrezko diren trebetasun sozialak eta ezagupenak eskuratzeko.
- Emakumeen eta beren seme-alaben **osasun psikologikoa hobetzea**, salaketak jartzerakoan aholkuak ematea eta salaketaren jarraipena egiten laguntzea.

Zentro honen funtzionamendurako gastuak (jana, prestakuntza materialak, ura, argia, zentroaz arduratzen den pertsonaren soldata) **9.000 eurokoak** dira urtean.





1. Jarduera **Desberdintasunen bila**

HELBURUAK

1. Gure munduan generoa dela-eta ematen den laneko diskriminazioaz jabetzea.
2. Lan-munduan sartzeko gizonezkoek emakumezkoekiko duten pribilegioa zein den aditzera ematea.
3. Sexua dela-eta bereizkeria jasaten dutenen sentimenduak ulertzea.

EDUKIAK

1. Enplegua gizon-emakume guztien eskubidea bada ere, langabezia tasak oso altuak dira oraindik ere, emakumeen artean bereziki.
2. Lanpostu bat lortzeko orduan emakumezkoek ez dituzte beti gizonezkoek dituzten aukera berak izaten. Emakumezkoengan eragina du ezkondua egoteak, familia izateak, itxurak,...
3. Lan-munduan sartzen diren emakumeak geroz eta gehiago diren arren egoera txarragoan egiten dute, lan profesionalaz gain etxeko lanik gehienak egin behar izaten baitituzte.
4. Batzuetan emakumezkoen lanak gizonezkoen lanak baino ordain-sari txikiagoa jasotzen du.
5. Iparraldeko herrialdeetan lan-munduan bidegabekeriak ikusten baditugu ere hegoaldean egoera larriagoa da: prestakuntza faltagatik kualifikazio gabeko lanpostuak, lan baldintza txarragoak (laneko lekua, ordutegia, soldata, segurtasuna,...), etxean lan-karga handiagoa (erosotasun gutxiago, seme-alaba gehiago,...).

BALOREAK

1. Errealitatearen azterketa kritikoa.
2. Bestearen lekuan jartzen jakitea.



LAN EGITEKO PROPOSAMENA

1. Taldeko mutil bat eta neska bat aukeratuko ditugu MUNDUA ATZEKOZ AURRERA antzezteko (antzerki lan txiki honen gidua lan-koadernoan dute ikasleek; hala ere, ez ditugu jakinaren gainean jarriko antzezlana arretaz jarrai dezaten). Garrantzitsua da antzezlana egingo dutenek hau aldeztu aurretik prestatzea eta beren rola testua ahotsarekin eta keinuekin azpimarratuz antzezteko. Animatzaileak egingo du narratzailearen papera. Bulego baten itxura duen dekoratua prestatu daiteke mahai bat eta aulki pare bat jarri.
2. Antzezlana bukatzean neska-mutilekin hitz egingo dugu:
 - Zer sentipen eragin dizkigu antzezlana?
 - Zein alderdi hartu dira kontuan kontratazioa egiterakoan? Zeintzuk hartu beharko lirateke kontuan?
 - Zein bidegabekeria salatu nahi dituzte antzezlana honek?
 - Egoera hau errealista da, edo errealagoa izango litzateke paperak aldatuko bagenu? Zergatik?
3. EMAKUMEA ETA ENPLEGUA testua irakurriko dugu neska-mutilekin. Neska-mutilekin hitz egingo dugu:
 - Iparraldean gertatzen diren gauzen artean zerk harritu zaitu gehien? Eta Hegoaldean? Zergatik?
 - Zein abantaila dute iparraldeko emakumeek hegoaldeko emakumeekiko? Zer dela-eta dute abantaila hori? Zerk eragiten du?
4. Ondorioak aterako ditugu.



Ikaslearen fitxa

1. Jarduera **Desberdintasunen bila**

ALDREBESTUTAKO MUNDUA



- Narratzailea:** Bernardo lan elkarrizketara doa. Bertan, kontratatu berria hautatzeaz arduratzen den pertsonal-burua bere zain dauka.
- BERNARDO:** Iragarkian agertutakoa dela eta nator hona, andrea.
- PERTSONAL-BURU ANDEREA:** Ederto, eser zaitez, nola duzu izena?
- BERNARDO:** Bernardo.
- PERTSONAL-BURUA:** Ezkondua ala ezkongabea?
- BERNARDO:** Ezkondua.
- PERTSONAL-BURUA:** Esan mesedez zure izen-deiturak osorik.
- BERNARDO:** Bernardo Delgado, Perezen senarra.
- PERTSONAL-BURUA:** Perezen senarra, esan behar dizut, gure zuzendaritzari gaur egun ez zaiola ezkonutako gizonezkorik hartzea gustatzen. Langile bila gabiltza Moreno Andrearen Sailerako, eta bertan badira dagoeneko hainbat lagun aitasunagatikko bajan. Egoki deritzogu bikote gazteek umeak edukitzeari; izan ere, gure enpresak umetxoentzako arropa ekoizten du eta seme-alabak edukitzea sustatzen du langileen artean, baina geroko gurasoak eta gazteak lanera ez etortzearen arazoa garrantzi handikoa da negozioa ondo bideratzeko.
- BERNARDO:** Andrea, ulertzen dizut, baina dagoeneko baditugu ume bi eta besterik ez dut nahi. Gainera, (aurpegia lotsagatik gorrituta eta ahots apalez) pilula hartzen dut.
- PERTSONAL-BURUA:** Ederto, orduan, aurrera joko dugu. Ikasketak?
- BERNARDO:** Enpresa Zientzietan Lizentziaduna eta Amerikako Estatu Batuetan masterra egindakoa naiz. Gainera, ingelesez, frantsesez, eta alemaneraz bikain hitz egiten dut.
- PERTSONAL-BURUA:** Bai, bai ¿Zertan egin duzu lan azkenaldian?



BERNARDO: Batik bat, ordezkapenak egin ditut, horrela seme-alabak txikiak zirenean, zaintzeko aukera nuen.

PERTSONAL-BURUA: Zein da zure emaztearen lanbidea?

BERNARDO: Metalgintzako enpresa batean obra arduraduna da. Baina orain ingeniari-tza ikasten ari da, etorkizunean amaren postua bereganatu behar duelako, bera izan baitzen negozio horren sortzailea.

PERTSONAL-BURUA: Berrito zeuregana joz, zeintzuk dira zure eskariak?

BERNARDO: Bada...

PERTSONAL-BURUA: Jakina denez, zure emaztearena bezalako lanpostu batekin eta etorkizunean hobetzeko itxaropenean, zuk soldata osagarria eskuratu gura izango duzu. Gastu pertsonaletarako diru apur bat, gizonezko orok nahi duena hain zuzen ere, bere kapritxoetarako, trajeetarako... Hasteko, 250 €, aparteko ordainsaria eta laneratze prima bat eskaintzen dizugu. Lanera joatea ezinbestekoa da lanpostu guztietan. Gure zuzendariak prima hori sortu behar izan du langile guztiak lelokeriengatik lanera huts ez egiteko. Gizonezkoen lanera ez agertzea erdira murriztu da; hala ere, badira huts egiten duen zenbait gizonezko aitzakia desberdinak direla medio, esate baterako, umeak eztula duela edo eskolan greba dagoela. Zenbat urte dute zure seme-alabek?

BERNARDO: Neskak sei urte eta mutilak lau. Biak eskolara doaz eta arratsaldez jasotzen ditut, lanetik irtendakoan, erosketak egin baino lehen.

PERTSONAL-BURUA: Eta gaixotzen badira, baduzu zer edo zer aurreikusita?

BERNARDO: Aititek zaindu ahal ditu, ondoan bizi da eta.

PERTSONAL-BURUA: Oso ondo, eskerrik asko, Pérezen senarra. Zenbait egunetan gure erantzunaren berri izango duzu.

Narratzailea: Pérezen senarra bulegotik irten zen, itxaropenez beterik. Pertsonal-buruak begiak jarri zituen berarengan irteterakoan. Hanka laburrak, bizkarra apur bat makurtuta eta ia ilerik ez zuen. Kontratazio arduradunak gogora ekarri zuenez: "Moreno Andereak burusoilak gorroto ditu", gainera, "altua, ile horia, presentzia onekoa, eta ezkongabea" nahiago zuela esan zion.

Pérezen senarra den Bernardo Delgadok, hiru egun beranduago, ondoko mezuaz hasitako gutuna jaso zuen: "Zoritxarrez, jakinarazi behar dizugu..."




EMAKUMEA eta ENPLEGUA

HEGOALDEko herrialde txirotuetan

- Txirotasunak nekazal ingurunean bizi diren emakumeei eragiten die gehienbat. Munduko txiroen %70 emakumezkoak dira.
- Emakumezkoen txirotasunak zerikusi zuzena du aukerarik, autonomia ekonomikorik, hezkuntzarako nahiz baliabide ekonomikoetarako sarbiderik ezarekin, maileguak, lurraren jabetza eta oinordetza-eskubiderik eza barne; bai eta erabakiak hartzeko orduan duen parte-hartze eskasarekin ere.
- Txirotasunak sexu-esplotazio egoerara eraman ditzake emakumeak.
- Emakume Langile etorkinek, etxeetan lanean aritzen direnak barne, beren jatorriko herrialdeetako ekonomian lagundu egiten dute, bertara bidaltzen duten diruarekin; era berean, lan egiten duten herrialdeko ekonomiari ere laguntzen diote lan-indarrean parte hartuz.
- H e g o a l d e k o A s i a n , mendebaldeko Asian eta Afrika iparraldeko emakumeek nekazaritzakoak ez diren ordaindutako lanpostuen %20 besterik ez dute betetzen oraindik.
- Gizonezkoak baino gehiago dira izen gutxiko lanpostuetan lanean ari diren emakumeak

IPARRALDEko herrialde aberastuetan

- Emakumeek lan merkatuan duten parte hartzea hazten ari da eta etxetik kanpora egiten duten lana gehitu egin da.
- Egoera berezian lanean ari direnen artean (denboraldi baterako, behin behinerako, lanaldi zati bateko hainbat lanpostu dituztenak, kontrata bidez nahiz beren etxeetan lan egiten dutenak) emakumezkoak dira gehienak.
- Ordaindutako lana duten emakume askok beren gaitasunak erabat garatzea eragozten dizkieten oztopoak topatzen dituzte: haurtzaindegietan zerbitzu egokirik eta ordaintzeko modukorik eza, malguak ez diren lanorduak, sexu-jazarpena,...
- Langabezian dagoen gizon bakoitzeko bi emakume daude lanik gabe.
- Emakumeek lan-karga bikoitza jasaten dute: etxeko lanen eta pertsonen zaintzaren zatirik handiena emakumeek egiten dute oraindik ere, nahiz eta etxetik kanpora ere lan egin. Euskadiko etxeetan etxeko lanen %65 emakumeek egiten dituzte, %1 gizonek eta %34 bien artean.



2. Jarduera: Zergatiak bereizten

HELBURUAK

1. Maquila deitzen diren enpresetan lan egiten duten emakumeen egoera ezagutu.
2. Maquiletan lan egiten duten emakumeek bizi dituzten bidegabekeriak aztertu.
3. Horrelako egoerei aurre egiteko proposamenak egin

EDUKIAK

1. Maquila deitzen diren enpresak nazioarteko azpikontratazioak dira. Eta egoitza beste herrialde batzuetan duten enpresei (gehienetan multinazionalak) teknologia gutxi eta esku-lan handia behar duten industria prozesuak nahiz zerbitzuak egiteko aukera ematen diete.
2. Maquilak aduana-zerga gabeko alderdietan jarri ohi dira, hegoaldeko herrialdeetako gobernuak iparraldeko herrialdeetako enpresa handiak erakartzeko sortutako industrialdeetan. Enpresa hauek erakartzeko, gobernuak erraztasun ekonomiko handiak eskaintzen dizkiete enpresa hauei: ez dute zergarik ordaintzen, maquila dagoen herrialdetik dirua ateratzeko erraztasunak dituzte, azpiegitura eta tokiko zerbitzuak eskuratzen zaizkie,...
3. Hondurasko maquilarik gehienak jantzigintzan aritzen dira. Enpresa hauetan kanpotik moztuta iristen diren piezak elkarrekin josi edo amaitu egiten dituzte.
4. Maquiletan lan egiten duten emakumerik gehienak 17 eta 25 urte bitarteko gazte ezkongabeak dira, seme-alabarik ez dutenak.
5. Maquilen helburua gutxieneko kostuarekin ahalik eta produktibitate handiena lortzea da. Horretarako emakumeen lan-baldintzak bidegabeak dira: lanaldi luzeak, soldata txikia, helburukako lana, lanean ari diren bitartean ezin dute hitzik egin, komunera joateko denbora jakinak, atsedenaldi gutxi eta motzak, hitzezko tratu txarra eta baita fisikoa ere, sindikatuetan antolatzeke debekua, amatasun baja hartzeko eskubiderik ez,...
6. Enpresa mota hau gaitz erdia da hegoaldeko gobernuentzat, lan-postuak sortzen dituztelako, atzerriko inbertsioak eta esportazioak handitzen dituztelako. Emakumeek lanpostu bat dute eta soldata irabazten dute, baina horren truke ordaintzen duten prezioa oso garestia da.


BALOREAK

1. Errealitatearen azterketa kritikoa.
2. Bestearen lekuan jartzen jakitea.
3. Justizia.



LAN EGITEKO PROPOSAMENA


1. Neska-mutilekin MAQUILETAKO BIZITZA artikulua irakurriko dugu
2. Maquilek dituzten abantailak eta desabantailak aztertzeko eskatuko diegu neska-mutilei. Horretarako lan-koadernoan duten taula osatuko dute. Egindakoa bateratu eta hitz egingo dugu: Nork ateratzen du etekin handiena horrelako enpresetan? Zergatik?
3. BENETAKO EMAKUMEEK BIRIBILTASUNAK DITUZTE filma ikusiko dugu neska-mutilekin. Film honetan Anaren istorioa kontatzen zaigu: Ana Los Angelesen bizi da eta jatorri hispanoa du, Ana bigarren hezkuntza bukatzean dago eta unibertsitatean joateko aukera duen familiako lehena da. Beka bat lortzeko benetako aukerak ditu, baina bere amak ez du nahi, ez du uste Anarentzat egokiena denik eta nahiago du Ana lanean hastea, argaltzea eta senargaia lehenbailehen topatzen saiatzea. Film honetan gogoetarako eta eztabaidarako hainbat gai topatuko dugu: emakumeen rola, maquiletako errealitatea, edertasun kanonak,... Maquiletako egoera landuko dugu gehiago.
4. Filmari buruz hitz egingo dugu neska-mutilekin: Zer gertatu zaigu deigarria? Zergatik? Zein baldintzetan egiten dute lana jantzigintzako maquiletako emakumeek? Nolakoa da tailer txikiaren eta azpikontratatu duen multinazional handiaren arteko harremana? Zein lan-eskubide ez da errespetatzen? Ze irtenbide bururatzen zaizue arazo honentzat?
5. Ondorioak aterako ditugu.



Ikaslearen fitxa

2. Jarduera: **Zergatiak bereizten**

MAQUILETAKO BIZITZA



Produktuak ekoizterakoan (jantziak, altzariak,...) egin behar den esku-lana egiteko hegoaldeko herrialdeetan sortzen diren enpresak dira maquilak. Multinazionalen inbestimenduak erakartzeko hegoaldeko herrialdeetako gobernuek sortutako industrialdeetan kokatu ohi dira maquilak. Gobernuek erraztasunak eskaintzen dizkiete atzerriko enpresa hauei bertako jendeari lanpostuak emateko.

Maquiletako enpresa-gizonek lortzen dituzten laguntzak honako hauek dira: ez dute zergarik ordaintzen, azpiegiturak eta tokiko zerbitzuak eskaintzen zaizkie (telefonoa, ura, argia,...), erraztasun handiz atera dezakete dirua herrialdetik.

Maquilek ez diete langileei ezagutarik eta teknologiarik eskuratzen, bertan egiten den lana esku-lana delako. Herrialde batean oso denbora gutxian irauten duten enpresak dira eta horregatik deitzen zaie "enara" enpresak.

Maquiletan lan egiten duten gehienak 17 eta 25 urte bitarteko emakumeak dira, alfabetatu gabeak (erdiak baino gehiagok lehen hezkuntza burutu du eta heren batek bigarren hezkuntza hasi). Oso gazterik hasten dira lanean, batzuk 15 urte bete aurretik. Gehienentzat etxetik kanpora egiten duten lana da maquiletakoa. Lanean ari diren emakumeen %75 ezkongabea da eta heren batek soilik ditu seme-alabak.



Emakumeek dituzten lan-baldintzek produktibitate handia eta gatazkarik eza bermatzen dizkiete Maquila industriei. Langileen eskubideak ezarriko eta defendatuko dituen legegistematik ez dagoenez, lan-baldintzak esplotazio hutsa dira.

Maquiletako emakume hauek gehienek etxeko lanak egin behar izaten dituzte beren etxeetara itzultzean: janaria prestatu, arropa garbitu, haurrak zaindu, erosketak egin,...

ONURAK	ERAGOZPENAK



3. Jarduera: **Premia bati erantzunez**

HELBURUAK

1. Cortes eta Atlantida departamentuetako (Honduras) emakumeek sufritzen dituzten arazoak ezagutu.
2. Jakinarazi Hondurasko emakumeek pairatzen duten injustizia oztopoa dela beraien garapenerako bidean.
3. FAMILIA BAT BAKEAN izeneko proiektua ezagutu eta proiektuarekin konpromiso bat hartu Honduraseko emakumeek genero-indarkeria gehiago paira ez dezaten.
4. CARITAS elkarteak ezagutzea eta lagun hauek borondatez egiten duten lana aintzat hartzea.

EDUKIAK

1. Honduras Ertamerikako herri bat da eta pobreziak jota dago, batez ere, Mitch hurakanaren ondoren, lau biztanletik bostek haren eraginak bizi zituzten eta.
2. Hondurasen emakumeek ez dituzte Iparraldeko emakumeen aukera berdinak (hezkuntza, osasuna, lana...)
3. Hondurasen modu berezi batean bizi da genero-indarkeriaren arazoa. Genero-indarkeria kasu asko daude baina gehienak ez dira salatzen. Beldurragatik eta emakumea diru aldetik senarraren menpe dagoelako gertatzen da hori nagusiki.
4. San Pedro Sulako Cáritas proiektu bat martxan jartzen ari da indarkeria jasaten duten emakumeak hartu eta ekonomikoki independente izan ahal izateko behar duten lege aholkularitza eta prestakuntza egokia eskaintzeko.
5. Caritasek 1967 urtetik Hondurasen lan egiten du eta ordezkari bat San Pedro Sulan dute.
6. Caritas mundu guztian txiroenen alde (emakumeak, langabetuak, etorkinak, bizitokirik gabeak,...) lan egiten duen elkarte bat da, Elizakoa.

BALOREAK

1. Errealitatearen ezagutza.
2. Enpatia.
3. Gehien sufritzen dutenekin solidaritatea.



LAN EGITEKO PROPOSAMENA

1. Hondurasi buruzko informazioa biltzeko (kokapena, historia, biztanleria, bizibideak, kultura, emakumeen egoera,...) 3-4 pertsonako taldeak osatuko ditugu. Lortutako informazioarekin talde bakoitzak murala egingo du klaseko besteei aurkezteko.
2. Topaketa misiolariarekin. Lagun honek San Pedro Sulako emakumeek bizi duten egoeraren eta FAMILIA BAT BAKEAN proiektuaren berri emango digu. Aurkezpena amaitzean neska-mutilek misiolariari galderan egin ahal izango dizkiote.
3. Proiektu hau aurrera daraman elkarteari buruz, CARITAS-i buruz, hitz egingo dugu neska-mutilekin. Zer dakigu erakunde honi buruz? Bada gure ingurune hurbilean (auzoan, parrokiari) elkarre haur? Zer egiten du? Beharrezkoa al da bere lana?
4. Beren parrokiako Caritas taldera binaka nahiz hiruak hurbiltzeko eskatuko diegu neska-mutilei, bertan nork lan egiten duen, zer egiten duten, nori laguntzen dioten, jendeari laguntzeko dirua nondik lortzen duten,... ezagutzera. Lan-koadernoan jasoko dute informazioa. Egindako lana elkarri jakinaraziko diogu.
5. BOLUNTARIO IZATEARI buruz idatziz gogoeta egiteko eskatuko diegu neska-mutilei. Bakoitzaren gogoetaren berri emango diogu elkarri, kointzidentziak zein izan diren ikusteko. Gaur boluntario izateko deialdia eginez iragarkiak (kartoi mehetan) egiteko eskatuko diegu neska-mutilei. Kartel hauek ikastetxea girotzeko ere balio dute.
6. Aurkeztutako proiektuari buruz hitz egingo dugu: Nola baloratzen dugu? Beharrezkoa al da horrelako proiektu bat? Zergatik? Prest al gaude laguntzeko? Zer egin dezakegu?



Ikaslearen fitxa


3. Jarduera: **Premia bati erantzunez**

Hurbil zaitetz zure parrokiako CARITAS taldera eta informazioa jaso:
zeintzuk dira, zer egiten dute, zergatik,
nondik lortzen dute dirua proiektuak aurrera eramateko,...

Empty pink rectangular area with a red heart border, intended for notes.

Zuk dakizuna eta zure esperientzia kontuan hartuz, idatzi ZER DA GAUR EGUN BOLUNTARIOA IZATEA: zertan datza, alde on eta txarrak, non izan boluntarioa, behar dira boluntarioak ala ez,...

Empty light purple rectangular area with a blue dotted border, intended for notes.



4. Jarduera: **Barrualdera bidaiatuz**

HELBURUAK

1. Kanpaina honetan ezagututakoa, ikasitakoa eta bizi izandakoa fedearen ikuspuntutik ospatu, jasotako guztiarengatik Jainkoari eskerrak emanez eta Hondurasko emakumeak bereziki gogoratu.
2. Jainkoari eskerrak eman, Caritasen beren denbora librea premi handiena dutenei laguntzen emanaz lanean ari direnengatik. Jainkoari hauen bokazioari indarra ematen jarraitzeko eskatu.
3. Hondurasko emakumeekiko gure engaiamendua ospatu.

EDUKIAK

1. Jesus beti dabil batetik bestera, gelditu gabe, baina gizabanakoak ikusi egiten ditu, eta ez azal-azalezik; behatu egiten ditu, nola dauden ikusten du eta errukitu egiten da sufritzen dutela ikusten duenean. Sentitzeko ikusi egin behar dugu.
2. Ikasleek premia oso handia zela ikusten zuten eta arazoa tratatzen kentzen saiatu ziren: aski du bakoitzak ahal duen bezala moldatzea. Txirotasunaren aurrean gure bihotza ukabil batean sartuta izaten dugu askotan eta gure eskuak itxi egiten dira.
3. Dizipuluek zer edo zer egin dezaketela uste du Jesusek eta horretara bultzatzen ditu. Dizipuluak Jesusekin fidatu eta mugitzen hasiko dira. Nahiz eta guk gauza handirik ez garela sentitu, Jesus gauza da gure bihotzak ukitu eta gu geure baitatik ateratzeko.
4. Jesusek jendeen bihotzak mugitu izanagatik eskerrak eman dizkio Aitari. Horri eskerrak, miraria posible da. Jainkoak pertsonen bitartez ekiten du.
5. Kanpaina honetan ikusi eta sentitu egin ahal izan dugu; partekatze eta mundu gizatiarrago eta bidezkoago bat eraikitze gure harri-koskorra ekartzeko aukera izan dugu; gure begirada gehien sufritzen dutenengan jarrita otoitz egin dugu.

BALOREAK

1. Hitza hausnartzea.
2. Barneratzea.
3. Fedea konpartitzea.



OSPAKIZUNERAKO PROPOSAMENA

1. Girotzea. Kaperaren erdian iparrorratz bat jarriko dugu (eta iparrorratzik izan ezean marrazki bat). Iparrorratzaren eskuin aldean egunkarian emakumeei buruz emandako argazkiak nahiz albisteak jarriko ditugu eta ezker aldean gizonei buruzko argazki nahiz albisteak. Honekin, munduan dauden banaketak adierazi nahi ditugu: alde batetik iparra eta bestetik hegoa, alde batetik emakumeak eta bestetik gizonak.
2. Motibazioa. Munduan gertatzen ari denaren zati bat ikusi, entzun eta bizi izan ondoren Jesusengana hurbilduko gara:
 - Mundua hobeto ezagutzeko eman digun aukera hau eskertzeraz
 - Mundua berreraikitzen erakuts diezagun eskatzera: bidezkoagoa, banaketarik gabea, denok senideak izango garena.
 - Solidarioak izaten, sufritzen dutenen lekuan jartzen, garena eta duguna partekatzen erakuts diezagun eskatzera
 - Solidarioak diren eta duten denbora, jakintza, guztia behar dutenei ematen dietenengatik eskerrak ematera.
3. Hitza: Mateo 14, 14-21 (*Ogien eta arrainen ugalketa*)
 - *Jendetza handia ikusi zuen Jesusek eta errukitu egin zen.* Jesus beti dabil batetik bestera, gelditu gabe, baina gizabanakoak ikusi egiten ditu, eta ez azal-azaltetik; behatu egiten ditu, nola dauden ikusten du eta errukitu egiten da sufritzen dutela ikusten duenean. *Sentitzeko ikusi egin behar dugu.*
 - *Ikasleek jendea bidaltzeko esan zioten Jesusi.* Dizipuluek premia oso handia zela ikusten zuten eta arazoa tratatuz kentzen saiatu ziren: aski du bakoitzak ahal duen bezala moldatzea. *Txirotasunaren aurrean gure bihotza ukabil batean sartuta izaten dugu askotan eta gure eskuak itxi egiten dira.*
 - *Jesusek jendeari jaten emateko eskatu zien dizipuluei.* Dizipuluek zer edo zer egin dezaketela uste du Jesusek eta horretara bultzatzen ditu. Dizipuluak Jesusekin fidatu eta mugitzen hasiko dira. *Nahiz eta guk gauza handirik ez garela sentitzen dugun Jesus gauza da gure bihotzak ukitu eta gu gure baitatik ateratzeko.*
 - *Jesusek ogiak eta arrainak hartu zituen eta, begiak zerura jasorik, Jainkoari eskerrak eman zizkion.* Jesusek jendeen bihotzak mugitu izanagatik eskerrak eman dizkio Aitari. Honi eskerrak da posible miraria. *Jainkoak pertsonen bitartez ekiten du. Aitor dezagun bere eragina eta izan gaitezen eskerronekoak.*
4. Keinua. Jesusek duguna emateko eskatzen digu. Neska-mutilei beren ingurunean desberdintasun horiek (iparra-hegoa, gizonezkoak-emakumezkoak) murrizteko egin dezaketena azaltzeko eskatuko diegu. Azalpena otoitz eran egin daiteke (eskaria, eskerrona,...). Otoitz egiterakoan iparrorratzaren inguruko irudi bat hartu eta iparrorratzaren iparraldean jartzeko eskatuko diegu. Beren otoitza eman ondoren iparrak mundu anaitu bat, denak elkartu diren mundu bat, desberdintasunik gabekoa erakusten digula ikusiko dugu.
5. Gure Aita.




Otoitza egiteko



Bide zabaltzera deitzen nauzu

Ez da biderik nire bizitzan, Jauna;
ozta-ozta gaur zabaldu ditudan bideak, bihar desagertuko direnak.
Bideen garaian nago ni:
bide gurutzatuak, bide paraleloak.
Eta ni bidegurutze batean bizi naiz
eta nire iparrorrazak, Jauna, ez du iparra markatzen.
Nekatuta noa helbururantz korrika
eta bideko hautsa itsatsi egiten zait pauso bakoitzean,
gauaren iluna bezala.
Lauoinka noa oinez, eta lorratz bat bilatzen dut itsumustuka,
eta oinatz batzuk jarraitzen ditut.
Eta nire buruari galdetzen diot:
Nora narama bide honek? Zein da nirea?
Zuk eman badidazu nirea da. Nora narama?
Zuk marratu baduzu helburua zein den jakin nahi dut.
Nire kantinplora eta bizkar-zorroa hutsik geratu eta
nirekin inork ere ez partekatzeko beldur naiz.
Jauna, zu atera zara nire bidera nire norabidea adieraztera.
Zure ahotsa da, dei bihurtua, lautadan nahiz mendi malkartsuan
nire bidea zehatz-mehatz zein den esaten didana.
Zure ahotsa da, dei bihurtua, nire lozorrotik,
nire bizitza erraz eta segurutik,
nire familiarengandik eta nire gauzetatik erauzi nauena
Zure ahotsa da, dei bihurtua, besterentzat laguntza,
eta zerbitzua, eta ulermena, eta poza,
eta laguntza izatera bidali nauena.
Zure ahotsa da, dei bihurtua, ni neure buruarengandik erauzi
eta talde bihurtzen nauena.
Jauna, zure bidea bilatzen nabil eta zure Hitzarekin fidatzen naiz.
Eman iezazkidazu pauso bakoitzean
zurekin ibiltzeko indarra eta kemena.
Eman iezadazu ibilaldirako prest dagoen lagun kementsu talde bat.
Gure denda eramango dugu, gurekin eramango zaitugu,
eta zu izango zara egunez egun bideratuko gaituena.
Bide baten bila ari naiz orain, Jauna.
Zu, Bidea zaren hori, eman argi berdea nire bizitzari
bidea zabaltzera deitzen bainauzu.





Jauna, bedeinkatu nire eskuak

Jauna, bedeinkatu nire eskuak
 leunak izan daitezen eta inoiz ere estekatu gabe hartzen jakin dezaten,
 kontuak atera gabe ematen jakin dezaten
 eta bedeinkatzeko eta kontsolatzeko indarra izan dezaten.
 Jauna, bedeinkatu nire begiak premia ikusten jakin dezaten
 eta ez dezaten inoiz ere ahaztu inor ere liluratzeko ez duena;
 azalaren azpikoa ikus dezaten
 besteak nire begiratzeko moduarekin zoriontsu izan daitezen.
 Jauna, bedeinkatu nire belarriak zure ahotsa entzuten jakin dezaten
 eta atsekabetuen oihua argi entzun dezaten;
 alferrikako hotsarentzat eta hitz-jarioarentzat gor izan daitezen
 baina ez deitzen duten eta entzunak
 eta ulertuak izatea eskatzen duten ahotsentzat
 nahiz eta nire erosotasuna eten.
 Jauna, bedeinkatu nire ahora Zure berri eman dezadan
 eta ez dezadan zaurituko edo hondatuko duen ezer ere esan;
 Leunduko duten hitzak besterik esan ez ditzadan,
 ez dezadan inoiz ere isilmandaturik eta isilpekorik saldu,
 irribarreak eragiten jakin dezadan.
 Jauna, bedeinkatu nire bihotza
 zure Izpiritua hartuko duen tenplu bizi izan dadin
 eta berotasuna nahiz babesa ematen jakin dezan;
 barkamena ematen eta ulertzen eskuzabala izan dadin
 eta mina nahiz poza maitasun handiz partekatzen ikas dezan.
 Jainko maitea, egon nadila zuretzat libre
 naizen guztiarekin eta dudan guztiarekin.



Mundua eraikitzen dugu

Jauna, bakean lan egiten duten eta mundu zoriontsuago bat eraikitzeko
 lanean ari direnengatik eskerrak ematen dizkizugu. Dena den, maiz ikusten
 ditugu sufritzen duten haurrak, emakumeak eta gizonak telebistan. Gose dira,
 gerran zauritu dira, beren etxeetan ehizatu dituzte, bonbek eta fusilek
 txikituta.
 Tarteka beren burua sufritzen dutenen alde eskaintzen duten gizon-
 emakumeak ikustera ere joaten gera. Hauen pisua arintzen saiatzen dira.
 Gaizkiaren aurka borrokatzen dira, beldurgarriei irribarre egiten diete eta
 ahulei adorea eta itxaropena eman.
 Jauna, benetan maite denean sufrimendua jasangarriagoa da, bidegabekeriek
 atzera egiten dute eta liskarrak itzali egiten dira. Erakutsiezaguz maitatzen,
 borrokatzen, irribarre egiten, bakea eta laguntasuna guregana iris daitezen
 guztion bihotzean, itxaropena lora dadin.



Ogia partekatuta goxoagoa da

- ✓ Guztiok dakigu milioika direla gosea pasatzen dutenak:
- ✓ atzo, gaur, bihar.
- ✓ Ezin dute lanik egin ez dutelako zer janik;
- ✓ gaixotu egiten dira, ez dutelako zer janik.
- ✓ Gazte hiltzen dira, ez dutelako zer janik.
- ✓ Milioika dira heriotza aurpegian eta gorputzean
- ✓ grabatuta daramatenak.
- ✓ Badira akituta eta gosez hiltzen lurrean botata daudenak
- ✓ gu, ongi asebeteta, oinez, trostan, lauoinka ibiltzen garen lur berean,
- ✓ paseatzen eta desfilatzen, korrika nahiz hegan,
- ✓ kirolariak, politikariak, zuzendariak, turistak nahiz kazetariak bezala
- ✓ ibiltzen garen lur berean, hain zuzen ere.
- ✓ Zer egiten dugu guk, mahaia, aire girotua eta
- ✓ ohe guria ongi jarriak ditugunok?
- ✓ Egoera honetara ohitu egin al gara?
- ✓ Gai honi buruz hitz egiteko gauza bai al gara bederen?
- ✓ Edo besteri botatzen diegu errua?
- ✓ Imintzioak alferrikakoak dira..
- ✓ Eta gupida ere bai.
- ✓ Ez du askotarako balio gaiari buruz hitz egiteak
- ✓ eta errua besteri egoztea koldarkeria da.
- ✓ Partekatu egin behar dugu!
- ✓ Ogia partekatzeak dugun guztia partekatzea esan nahi du,
- ✓ gure ondasunak eta ongizatea, luxua eta erosotasunak.

Ama Maria



- ✓ Maria ogirik ez duten neska-mutilen ama.
- ✓ Erakuts iezaguzu partekatzen.
- ✓ Maria, aterperik ez dutenen ama.
- ✓ Erakuts iezaguzu abegikorrak izaten.
- ✓ Maria, oinutsik dabilzanen ama,
- ✓ Erakuts iezaguzu onbera izaten.
- ✓ Maria, limosna eskatzen dutenen ama,
- ✓ Erakuts iezaguzu eskuzabalak izaten.
- ✓ Maria, gorrotatzen dutenen eta gaizkileen ama.
- ✓ Erakuts iezaguzu geure errua aitortzen.
- ✓ Maria, erortzen direnen ama.
- ✓ Erakuts iezaguzu maitekor izaten.
- ✓ Maria, negar egiten dutenen ama.
- ✓ Erakuts iezaguzu bihotzak arintzen.



2006KO BAKEAREN NOBEL SARIA


Muhammad Yunus, txiroei mikromaileguak ematen dizkien Grameen Bank-eko zuzendari exekutiboa, Bangladeshen, Bengalan, jaio zen. Ekonomi zientziak ikasi zituen New Delhin eta bere ikasketak Estatu Batuetan zabaldu zituen. 1972an, Bangladesh-ek independentzia lortu eta gutxira hain zuzen ere, itzuli zen bere herrialdera Chittagong-eko unibertsitateko ekonomia saila zuzentzera.

Bere herrialdean irakasten zituen teoria ekonomikoen eta errealitatearen artean dagoen aldea egiaztatu ahal izan zuen. Jobra eskualdeko (Bangladesh) nekazariekin batera biziz, Yunusek zera ulertu zuen: txirotasuna bere horretan betikotzen zela txirotasun ekonomiatik kanpora uzten zituelako. Ohiko bankuek ez zieten bermerik eskaintzeko modurik ez zutenei mailegurik ematen, eta honek txirotasunaren sorgin-gurpila sortzen zuen. Jende askoren zoriona duintasunez bizitzeko aukera emango zien artisau-jarduera bati hasiera eman ahal izateko diru kopuru txiki baten baitan zegoela ikusi zuen, batzuetan dolar baten baitan.

Sorgin-gurpil hau hausteko asmoz sortu zuen Yunusek 1976an "Txiroen bankua" (Grameen Bank). Irabazi-asmorik gabeko erakundea da, ehunka mila herrikide miseriatik atera dituena. Yunus mikromaileguen iraultzaren arkitektotzat hartzen da. Bere bankuak txiroen bano ez dizkie maileguak ematen, eta hauek bankuko akziodun bihurtzen dira. Gaur egun Bangladeshko 68.000 herrixketako ia 38.000tan aritzen diren 22.000 langile bano gehiago ditu banku honek; 2,3 milioi laguni ematen dizkie maileguak, eta hauetako %94 emakume txirotasun dira; eta maileguak itzultzeko tasa %97koa da eta honek, Yunus-en hitzetan, zera erakusten du, "maileguak ez dutela bermerik behar itzuliak izateko" alegia.

Mailegu-hartzaile gehienak lurrik ez duten emakumeak dira, eta maileguak hartzeko bosnakako taldeak osatzen dituzte. Bi emakume txiroenak dira mailegua lehenengo hartzen dutenak, eta taldeko beste hiruek ez dute mailegurik jasotzen aurreko biak beraien maileguak ordaintzen hasi arte; horrela laguntza-presio sare bat sortzen da. Formula honek "berme solidarioa" izena du eta idatzizkoa nahiz ahozkoa izan daiteke. Batek ordaintzeari uzten badio denek galtzen dute laguntza berriak jasotzeko aukera. Batez besteko mailegua 75 dolarretakoa da eta gehienez 300 dolarretakoa.

Mikromaileguak deitutako maileguak herritar txiroenen egoera hobetzeko asmoa dute. Hauek jasotako dirua lurrak eta ganadua erosten inbertitzen dute. Txirotasunaren marra gainditzen ez duen biztanleriaren %50 txiroena da Grameen-en helburu, batez ere emakumeak, hauek baitira txirotasun-karga handiena jasaten dutenak. Bankua bezero bila joaten da eta autoenplegua sustatzen du, horretarako talde txikiak eginez. Gaur egun 52 herrialdetan daude Grameen Bank-en metodo berarekin mikromaileguak ematen dituzten erakundeak.





PROCLADE
San Francisco, 12A-3º
48003 - BILBAO
94 416 69 31
mision-bi@terra.es

Laguntzen du:

bbk